

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua gauzatzeko baliabide fisikoen artean, kaxen materialak eta haziak ez ezik, lokal bat beharko litzateke. Bertan burutuko dira ekintza guztiak, hala nola, kaxen ekoizpena eta ondoren hauetan joango diren haziak ereingo dira. Ordenagailu bat ere beharrezkoa da sareko jarduetarako, webgunea edota plataforma izango dena sortzeko. Horrekin batera, ONG-ekin eta bide batez enpresekin harremanetan jartzeko, aipatutako azken baliabide fisikoa ezinbestekoa da.

Giza baliabide edo baliabide intelektualei dagokienez berriz, Ekoteam negozioaren parte diren taldekide bakoitzaren ezaugarri ezberdinez baliatuz, bakoitzak rol bat edukiko du. Horrela, talde lana gauzatuz, emaitza hobekak lortuko dira. Taldea bost pertonez dago osatua, hona hemen bakoitzaren eginkizuna: lehena koordinatzailea izango litzateke, honek dena antolatzea du helburu, planifikazio on baten bidez soilik lor daitezkeelako emaitza egokiak. Beraz, burutu beharrekoen jardueren egutegi bat sortzeaz gain, taldekide bakoitzaren lana ikuskatuko du eta arazoren bat suertatzen bada konponbideak bilatu beharko ditu. Jarraitzeko, bigarren taldekideak kaxak ekoizteko materialak lortu beharko ditu, hau da, egurra saltzen duen enpresa ezberdinekin harremanetan jarri beharko da eta eskaintza egokiena aukeratu. Hirugarrenak aldiz, kooperatiba eta baserritarrekin kontaktuan jarri eta haziak eskuratu beharko ditu, hauek ere prezio egokienean. Bestalde, behin material guztiak lortu direla, laugarrena kaxak muntatu eta haziak ereiteaz arduratuko da. Azkeneko pertsonaren lana webgunea sortzea da, jendearen finantziazioak (beharrezkoa den beste baliabide bat izanez) kudeatuz eta ONG-ekin harremanetan jarritz. Ekoiztako hazi-kaxa kopurua handia denean, ONG-etara eramango da, eta hiru taldekide arduratuko dira ONG-ekin batera herrialde azpigaratuetara joateaz.